

ERAKUSKETA // “Langara, golegile handia”

Erakusketaren hasiera ekitaldia: **2025, otsailak 15. – 12etan Bastero Kulturgunean**

Erakusketa: otsailaren 15etik martxoaren 22ra Erakusketa gelan

Antolatzailea: Andoaingo Udal Artxiboa.

Komisarioa: Itxaso Mendiluze

Isidro Langara Galarraga munduko futbolaren historian nabarmen ageri da. Bere kirol ibilbidea ez da aski ezaguna bere herrian, Andoainen. Adineko herritarrek gogoan dute Langara, futboleko izarra izan zena, besteak beste 1968an eta 1990ean merezitako omenaldiak egin baitzizkion hainbat kirol-elkartek eta erakundek; baina andoaindar gazteenek ez dakite zeinen garrantzitsua izan zen bere herrikiderik internazionalena. Horregatik eta baliatuz bere familiak Isidroren gauza eta ondasun materialak Real Oviedo taldearen museoari utziko dizkion aukera, Langara bertan itzal handiko jokalaria izan baitzen eta gaur egun mito handia, bidezko iruditu zaigu Oviedora eraman aurretik bere herrian erakustea. Erakusketa aukera paregabea da bere kirol jardun luzea eta gure herrikidearen ibilbide saritu paregabea ezagutzeko bere puska eta gauza pertsonalak ikusiz (pasaporteak, dominak, prentsa iruzkinak...) eta argazkien eta gainerako materialaren bidez, bere ondasun horiek guztiak Real Oviedo futbol taldearen museoak eskuratu eta babespean jarri aurretik.

Andoain, Isidro Langararen kirol bizitzaren abiapuntu eta helmuga da. Jarraian erakusketa hau egituratzen duten mugarri nagusiak: Andoainen egin zituen lehen golak, Bildur Gutxi taldean, ondoren Donostiako Esperanza elkartearen eta Tolosa taldean ibili zen, eta, azkenik, Real Oviedoren kontratu garrantzitsua iritsi zen, bere ibilbidean erabakigarri gertatuko zena.

Gerra zibilak aldaketa handia ekarri zuen bere bizitzara eta Isidro Euskadiko futbol selekziora eraman zuen, harekin lorpenez betetako nazioarteko bidaia eginez. Gerraren ondoren, Langarak bere bidea Argentinan eta Mexikon jarraitu ahal izan zuen eta bi herrialde horietan arrakasta handia lortu. Ospea eta itzala egotzi zizkion Real Oviedo taldera itzulita, Isidrok bertan eman zion amaiera bere futbolari jardunari, sari berriez osatuz ordurako bikaina zen ibilbide jaukala.

Ameriketara entrenatzaile ibilitako urteek eta Oviedo eta Andoainera tarteka egindako bidaiak ixten dute Isidro Langarari eskainitako erakusketa hau, futbolaren mundu mailako historian izan den golegilerik onenetakoa aurkeztuz.



Erakusketarekin batera, hainbat ekitaldi antolatu dugu Langararen irudiaren inguruan: haren irudi ikonikoa duen horma-irudia egin da eta futbolariaren ibilbidea eta sari-zerrenda jarri dira bi plakatan, Isidro Langararen izena daraman zubiaren ondoan, eta, era berean, Miguel Sanz Oviasek eta James Harrimanek idatzitako "Langara. The lord of the goals" liburuxkaren gaztelaniazko eta euskarazko bertzioak berrargitaratu ditugu. Argitalpen hori andoaindar guztien etxeetako postontzietan banatuko da otsailaren 15a baino lehen.

Eskerrak eman nahi dizkiogu Langara familiari material hori ikusi eta gozatzeko ematen digun aukeragatik eta, bereziki, Junkal Guerrero Langarari, bere osaba-aitonaren omenezko ipuin musikatua osatu baitu, 2025eko otsailaren 23an Bastero Kulturgunean estreinatuko dena.

